



ALEXTXIKON®

**GAILURRERA IRITSI  
ETA HISTORIAN  
SARTU**



# NANGA PARBAT (8.126M) MENDIAREN LEHENENGO NEGUKO IGOERA

## Alex Txikonek berak kontatuta

2016ko otsailaren 26a eta Alex Txikon nazioarteko alpinismoaren historiaren data eta izen garrantzitsuen zerrendan sartu dira. 15:37tan (Pakistango ordua), Lemoako eskalatzailea Ali 'Sadpara' pakistandarrarekin eta Simone Moro italiarrarekin batera heldu zen Nanga Parbat (8.126m) tontorrera, azkenik 'Mendi Hiltzailea' urtarorik hotzenean konkistatuz eta neguko zortzimilakoen jardunean azkenaurreko muga gurutzatuz.

Menditzarraren handitasunak, gainditu beharreko distantzia eta malda itzelek, klima hotz eta aldakorrek, eta aukeratutako bidearen (Diamir isurialdeko Kinshoffer bidea) berezko zailtasun teknikoek ez zieten lana erraztu. Baina Txikonek eta honen taldekideek, alde aurreko esperientzietatik ikasita, estrategia logistikoa egoki bati jarraiki lan egiten jakin zuten, talde lan gogorra baliatuta eta baita pazientzia dosi handiak ere.

Kirol erronka baten lorpen hutsetik harago, ordea, 'Mendi Biluzia' ezizenaz ere ezaguna den honen gorenera igo izana Txikonen pertseberantzia, irmotasuna eta pasioa saritzera dator; bost urtez aritu baita bere ametsa bilatzen eta lantzen. Zalantzarik gabe, inflexio puntu nabarmena da 21 urte zituela Broad Peak eskalatu eta orduz geroztik hamar urte baino gehiago zortzimilakoetan eman dituen alpinistarentzat.

Orain, beste inoiz baino gehiago, Alex Txikonek biziposa partekatu eta kutsatu nahi du.

Izan ere, bere proiektuak pentsatu eta egikaritzeko ezinbestekoa duen bizitasun hori bera transmititzen die mendia maiten duten guztiei bere abenturen kontaketa ere.

Asko du helarazteko: neguko balentria honen aspektu teknikoenetik hasita, elkartasun nahiz konpromiso kontzeptuetatik pasa eta arrakastaren/porrotaren inguruko hausnarketa sakon eta intimoetara iritsita; beti ere tankera honetako edozein bidaiari lotutako esperientzia humano zein kulturalak ahaztu gabe.

Eta jakina, erakusteko ere makina bat irudi dauka: argazkiak eta ikus-entzunezko material txundigarria, une batez ikusentzuleak Lurreko bazter aldunduenetako batera eramango dituen.



# ALEX TXIKON

Lemoa, 12/12/1981.

Familia apal eta oso ugari baten baitan jaio zen (13 neba-arrebatan gazteena da). Hiru urte zituela Gorbeia mendi tontorrera igo zen; geroago, Ganzabal Mendi Taldearen baitan, lehenengo irteerak egin zituen Pirinioetara, Picos de Europa eta Alpeetara; 17 urterekin Pamir mendikatera bidaiatu zuen; eta 21 urte bete berri zituela bere lehenengo 'zortzimilakoa' igo zuen.

Orduz geroztik, 30 bat espediziotan hartu du parte, horietako askotan (2005etik aurrera) 'Al filo de lo Imposible' telebista altuerako kameralari gisa. 2008an Edurne Pasabanen '14 x 8.000' proiektura batzearekin batera heldu ziren, beharbada, Txikonen ibilbideko urterik meteoriko eta emankorrenak, beti ere tontor kopuruari dagokionean. 2011n, ordea, norabidea aldatu nahi izan zuen eta, hala, Pasabanekin Everestera itzultzeko gonbitea alboratuta, abentura berrietan eta, batez ere, alpinismoa egiteko forma berrietan murgiltzeko hautua egin zuen: ipar paretak, bide berriak, alpetar estiloa, hormatzarrak eta, batez ere, neguko espedizioak dira bere apustua. Azken finean, hain arrakastatsuak izan ezarren, alpinistikoki askoz ere baliotsuagoak eta aberasgarriagoak diren proiektuen alde egin du.

Alpinista ez ezik, aizkolaria eta BASE jauzilaria ere bada Txikon; kirol eskaladan ere aritzen da baina, guztiaren gainetik, abenturazale nekazaintzat du bere burua; esploratzea maite du, bidaiatzea, jende ezberdina eta berria ezagutzea... edozein espedizioaren ezinbesteko osagaitzat du hori guztia, kirol erronka ororen osagarri.

(Curriculum osoa: [alextxikon.com/eu/nire-bizitza](http://alextxikon.com/eu/nire-bizitza))





# BERE ZORTZI- MILAKOAK

**2003**

Broad Peak (8.051m).

**2004**

Makalu (8.463m).

**2004**

Cho Oyu (8.201m).

**2007**

Shisha Pangma (8.027m).

**2008**

Dhaulagiri (8.167m).

**2008**

Manaslu (8.163m).

**2010**

Annapurna (8.091m).

**2010**

Shisha Pangma (errepikapena).

**2011**

Gasherbrum I (8.080m) eta Gasherbrum II (8.035m) 6 egunetan.

**2013**

Lhotse (8.515m).

**2016**

Nanga Parbat (8.126m)

# BERE NEGUKO ESPEDIZIOAK

## 2011

Gasherbrum I (8.080m).  
7.000m arte.

## 2012

Gasherbrum I (8.080m).  
Bide berria 7.400m arte.

## 2013

Laila Peak (6.096m).  
Lehenengo neguko igoera.

## 2015

Nanga Parbat (8.126m).  
Kinshofer Bidea 7.850m arte.

## 2016

### LEHENENGO NEGUKO IGOERA

Nanga Parbat (8.126m)





# BESTE JARDUERA AZPIMAGARRI BATZUK

## **2006**

Antartida. Scott (880m), Shackelton (1.465m, bide berria) eta Wandell (2.397m, sekula eskalatu gabea) mendiak.

## **2004, 2011, 2013.**

Hiru saiakera K2an (8.611m).  
Cessen eta Abruzzi bideetatik.

## **2012.**

Groenlandia.  
Ulamertosuaq (1.858, bide berria).

## **2013.**

Nuptse (7.861).  
Gailurretik 20m-ra, tontor ertzean.

## **2014.**

Kangchenjunga (8.586m).  
Alpetar estiloa Ipar isurialdetik 8.500m arte.

## **2014.**

Izen Gabeko Dorrea (6.251m).  
'Eternal Flame' 36 ordutan.

## **2015.**

Thalay Sagar (6.904m). Bide berria Ipar-Mendebaldeko pilarean 6.420m arte.  
'Askatasun Taupadak' 700m + 520m M5/6, A3, W14+.



**KONTRATAZIORAKO:**

(0034) 656 309 260

[eventos@eventi3.com](mailto:eventos@eventi3.com)